

## MARKINAKO EUSKAL-PESTAI DIOSALÁ.<sup>a</sup>

Lañu meak urratu ditu eguzkiak;  
Urrez jantzi dirade baso ta mendiak;  
Intzezko perlaz barats eder ta zelaiak,  
Uztà aberatsez masti eta sagardiak.

Egokiago dute choriak kantatzen;  
Itur chuloak mur mur geiago egiten;  
Ardi bildotsak beeka ez dira gelditzen,  
Ez ta orriak ere pիրpirka isiltzen.

¿Ote dira alabantzak zeru goietara  
Edo bendizioak gure Euskal-errira?  
Ez dakit; baño otsamar oen bidez gera  
Goizago alchatu ta goaz Markinara.

Auzoetatik datoz ateo agureak,  
Ezkonberriak eta ezkondu gabeak,  
Mendi muñotik beera pozkidaz beteak,  
Batzuek kantari ta oiuka besteak.

Aiton gordiñen soñak dira antziñakoak,  
Burni utsaz gudatzen ziradenekoak;  
Prenda batzuek noski, auskalo noizkoak...  
Gernikako aritzen era berekoak.

¿Zeñen politikak dauden galai ta neskachak  
Jantzirik aifñ egoki soiñ churi berdiñak!  
Iruditzen zaizkigu belcharga<sup>1</sup> bandadak  
Aintzirako bagetan<sup>2</sup> ariñ dabiltzanak.

Arpegiak echeai dizkie garbitu;  
Atal-aurreak chukiñ izetsaz posatu:  
Leiotik zintzillika eskaiak<sup>3</sup> paratu:  
Iak eta loreak kaleetan banatu.

¿Zergatik dute aurten apaindu orrela  
Erri maite polita iñoiz ez bezela?  
Euskarari pestak ¡ah! diote dirala;  
Ikusi ez diranak Markinan sekula.

Goizetik ari dira dorrean eskillak  
Zeruko Erregiñari egiten agurrak;  
Koruan organo ta kantore biguñak  
Gure Jaungoikoari ematen eskerrak.

(a) Markinako euskal-pestetara bialdun izan zan moldaera au.

(1) Cisnes.—(2.) En las aguas del lago.

Kalez kale dabiltza danboliñ chistuak  
 Jotzen zortziko edo soñu zar neurtuak;  
 Ichedoten gazteak plazara bilduak  
 Zoraturik, egoki artzeko puntuak.

Begira cherko artan zenbat uso churi  
 Jira eta biraka dabiltzen dantzari,  
 Onra aundi bat egiñaz d'Abbadie jaunari  
 Euskal-erriko *erle* argidotarrari!

Gogoan izango du guro lur maiteak.  
 Orrek esnaatu ditu, euskara zaleak,  
 Itz larri ta neurtuak izkribatzalleak;  
 Euskararen onean sari emalleak:

Konparsa egilleak eta dantzariak;  
 Bersolari egoki ta pillotariak;  
 Tuntun-chistu jotzalle ta palankariak;  
 Irrintzigilleak ta korrikalariak.

Orri darraikiote napar bizkaikatarrak,  
 Prestatuaz urteero euskal-pesta ederrak,  
 Alkartu naian ziñez menditar azkarrak,  
 Berrito gozatzeko gure Lege zarrak.

¿Nola parretsu ez da egongo Markina  
 Etorri bazaiozka gaur berarengana,  
 Lau senide prestuak, eta gañera *ama*,  
 Besoak zabaldurik bere umengana?

Utsirikan alde bat otiñ gorrotoak,  
 Martek biralitako jaiera gaiztoak,  
 Badituzte moldatu Euskal-elkargoak  
 Amari chukatzeko ¡ai! negar malkoak?

Berandu bedeik ere, baditu ikusten,  
 Aitorren denborako dantzak berrituzten;  
 Usadio zar danak berrito piztuzten;  
 Euskara maiteari bizia ematen?

¿Ez du laño churi ark, an goian, begira,  
 hita Juan Antonio Mogelen ichura,  
 Etorri nai baluke bezela onera  
 Itzkuntz-guda onetan parte artutzera?

¿Ez derizkiotzute chaloka dirala  
 Bere lagun guziak ari egiñala,  
 Jaungoikoak agindu balie bezela  
 Pesta oen baimena eman dezatela?

Korde gabe bezela iñoiz geratzean,

¿Ez dezute aditu jargoiren oñean,  
Euskaldun bat zerura egatzen danean.  
Alborada ematen koroatu artean?

Enzun ez dituzute urrezko lirakin,  
Larramendi da Erro Astarloarekin,  
Andre Vicenta Mogel beste askorekin  
Euskaraz kantatutzen boz estitsuakin?

¿Ez dezute aditu esaten azkenik,  
Ez dala iñon ere aiñ izkuntz ederrik  
*Egin bedi argia* esan ezkeroztik?  
Asko gizon jakintsu ikusi ditut nik

Emango lutekenak zer nai diru, gauza,  
Balezateke euskara ederrean mintza:  
Eta ala ere ¿zenbat munduan dabilta,  
Euskaraz itz nai ezik ¿ez dabada au lotsa!

Naiz parreak erasi, itz egin naiean  
Izpirik ez dakiten izkuntz arrotzean!  
Jakin arren besteak, mintzatu gaitean  
Arriturik mundua daukan izkundean.

¿Humboldt aundia etzan euskaraz mintzatu?  
Bonaparte Lenenak Likasi ez ditu  
Euskal-izkera denak, eta argitaratu,  
Jakintsuak zai zeuden ainbeste liburu?

¡Ea bada mutillak! jostatu gaitezen  
Soñu zarrak piztuta moduz dantzatutzen;  
Ez beñere aspertu euskaraz mintzatzen:  
Gure aiton erneak ¿zeñen maite zuten!

Gaitzik gabeko oiturak, gorde aztu gabe;  
Zeren aingeruhoak sortuak dirade:  
Egun charrak etorri bazaizkigu ere,  
Iragoko dira, ez izutu batere:

Benturaz dira izango gure onerako;  
Egin ditugun utsak ongi garbitzeko;  
Euskal-erriko seme onak elkartzeko;  
Ama urrikaltsuren osasunerako.

Pozerazkidak pesta oen egilleai,  
Euskal-guda au onera ekarri dutenai:  
Zorionak, egiaz biotzetikan ¡ai!  
Zeruak emen para dituen ibarra.

C. DE OTAEGUI.